



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko martxoaren 30a

41. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, 2020ko Kontu Orokorrei buruzko txostenean Kontuen Ganberak adierazitako salbuespenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Iratxeko monasterioaren jabetza lagatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Muesko erromatarren presako aztarnategia hartzen duen finkari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan 2021ean egindako aparteko orduei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nicasio Landa ikastetxe publikoaren egoera aztertzeke sortu zen lantaldeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Ekialdeko Pirinioen Suspertze Ekonomikorako Planeko ekintzaitzako eta mikroenpresen proiektuan garatutako jarduketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, 10+500 kilometro puntutik 22+500 kilometro puntura bitarte N-121 errepidea 2+1 bide bihurtzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, NABIren webguneko departamentuetako berdintasun-unitateekiko mintzakidetzarako plataformari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretua aldatzen duen foru dekretuaren proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, foru erkidegoaren errealitate historiko eta instituzionala desitxuratzen duten euskarazko testuliburuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Corellako Arrese Museoaren ondoko eraikinari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Valle de Odieta SCL eta Hibridación Termosolar Navarra SL merkataritza-enpresei irekitako zehapen-espeditentziari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa (ABEN) Euroeskualdearen erregelamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- Galdera, despopulazioaren aurka borrokatzera bideratutako gastu arrunteko neurrietarako Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntzen 2021eko deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Euroeskualdearen txandakako lehendakaritzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernua beken eskumena Nafarroaren esku utz dezan premiatzen duen mozioa betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Cascanteko jarduera ekonomikoen eremua taxutzeko hirigintza-planeamenduko dokumentuak idazteko lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen inbentario eta ohar soilei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak berreskuratze aldera toki entitateentzako kontsulta eta aholku bulego bat sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nafarroan jokia arautzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2020ko Kontu Orokorrei buruzko txostenean Kontuen Ganberak adierazitako salbuespenari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2020ko Kontu Orokorrei buruzko txostenean Kontuen Ganberak adierazitako salbuespenari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 21eko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 291 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2022ko urtarrilaren 17an (10-22/PES-6 galdera), 2020ko Kontu Orokorrei buruzko txostenean Kontuen Ganberak adierazitako salbuespena dela-eta. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Galderan Kontuen Ganberaren txostenari buruzko aipamen hauek egiten dira:

Kontuen Ganberak 2020ko Kontu Orokorrei buruz egindako txostenean honako hau esaten da finantza-auditoretzaren gaineko salbuespenei dagokienez:

“Hirugarrenen kontabilitate osagarrian eta zerga-kudeaketan (CAT) eta SAPGE21 kontabilitate-sisteman ekitaldian jasotako kobrantzei buruz jasotako informazioa ez da behar bezala eskualdatu. Hortaz, ezin da identifikatu ekitaldian edo aurreko urteetan sortutako diru-sarrereri dagokien. Horregatik, 1. eta 2. kapituluetak diru-sarreren aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriko diru-bilketa garbiak beste ekitaldi batzuetan sortutako eskubideen kobrantzak izan ditzake. Horri

dagokionez, egiaztatu dugunez, diru-sarreren 1. eta 2. kapituluerei dagokien bilketa garbian bildutako 3.586,40 milioietatik 3.257,13 milioi 2020an sortutako diru-sarrereri dagozkie. Bilketa garbiaren gainerakoari dagokionez (329,09 milioi), ez dugu 2020an edo aurreko ekitaldietan sortutako diru-sarrekin bat datorren ebidentziarik.

Horrek, era berean, ondorioak ditu diruzaintzako gerakinetik kobratzeko dauden eskubideen epigrafean eta balantzeko aurrekontu-zordunen epigrafean. Zifra globalak zuzenak izanda ere, ez dago haien osakeraren banakapena arrazoizkoa izatearen ebidentziarik”.

txosten horretan bertan, “Iruzur fiskalaren aukako borroka” atalean, honako hau esaten da Nafarroako ogasunak 2020an sortutako diru-sarrereri dagokienez:

“Erakutsitako diru-sarreren sortzapenak ez dakar berekin kopuru horiek kobratu izana; ares-tian aipatu dugun bezala, CATen diseinuan eta tributuen kudeaketan eta kontabilitatean erabiltzen diren aplikazio informatikoen artean dauden arazoak direla eta, ezin dugu identifikatu zerga-iruzurraren aurkako borrokan detektatutako kopurutik zenbat diru bildu den egiazki”.

Honako galdera hauek egin ditu Adolfo Araiz Flamarique jaunak:

1. Hirugarrenen kontabilitate osagarrian eta zerga-kudeaketan (CAT) eta SAPGE21 kontabilitate-sisteman ekitaldian jasotako kobrantzei buruz jasotako informazioa zergatik ez da behar bezala eskualdatu?

NFOren eskumeneko tributuak kontabilizatzeko, haien emaitza ekonomikoa erregistratzen da hirugarrenen kontabilitate osagarrian (CAT), eta erregistro horretatik informazioa ematen zaio Foru Komunitateko Administrazioaren kontabilitate-sistemari (G21).

CATen zerga-kudeaketaren ondoriozko mugimendu guztien xehetasunak erakusten dira: sortzapenak, kobrantzak, itzulketak eta konpentsazioak. Likidatutako zerga-betebeharrak prozedurako zer egoeratan dauden agertzen da. Mugimendu guztiak egunero erregistratzen dira prozesu informatiko automatizatuen bidez. 2021. urtean 3.770.286 idazpen kontabilizatu dira, 4.465.004 oharrez osatuak.

Egunero, kontzeptuaren eta zergaren arabera agregatutako informazioa G21 kontabilitate sistemara aldatzen da. Agregazio hori automatikoki egiten da, sisteman indarrean dauden kontabilitateko definizioei jarraituz. Eguneroko informazio agregatuaren

osagarri, Diru-bilketa Zerbitzuak xehetasun txostenak igortzen ditu Kontabilitate Zerbitzura ekitaldia itxitakoan. txostenetako datuak prozedura informatikoen bidez lortzen dira. Aldian behin tributu-zordunen saldoak CATen eta SAPG21en bat ote datozen berrikusten da, eta bi sistemetan bat datozela egiaztatzen da ekitaldi bakoitza itxerakoan.

Aipatu agregazioek badituzte mugak, eta horrek eragozten du Kontabilitate Publikoko Plan Orokorreko zehaztapenak erabat betetzea. Aurrekoa gorabehera, Kontuen Ganberaren txostenak berak dio CATetik SAPG21era aldatutako zenbaterako osoak zuzenak direla.

2014tik 2019ra bitartean lan bat garatu zen interfaze berri bat inplementatzeko CAT tributu arloko informazio sistemaren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko SAPG21 kontabilitate sistemaren artean. Lan horretarako baliabide tekniko handiak jarri ziren, bai NFOren beraren langileak eta ente instrumentalenak (Tracasa Instrumental SL), baita kanpoko enpresenak ere (IECISA), baina huts egin zuen eta 2019ko azaroran itxi egin zen. Une hartan erabaki zen ordura arteko interfazeari eustea. Egun horretatik hasita, NFOn gogoeta prozesua egiten ari da kontabilitateko informazio sistema eraginkorrago bateranzko eboluzioaz, eta aintzat hartzen ari dira Kontuen Ganberaren oharra; ildo horretatik, Kontuen Ganberak 2022rako agindu duen txostenak oinarriak ezartzeko balioko du, eta hortik aurrera ezarriko dira jarduketak-lerroak.

2. 2020an diru-bilketa garbia 3.586,40 milioioa izan zen, eta hortik 3.257,13 milioi 1. eta 2. kapituluetan 2020an sortutako diru-sarrerari dagozkie. Nondik sortu dira, hortaz, gainontzeko 329,09 milioiak?

Nafarroako 2020ko Kontu Orokorren fiskalizazioan Kontuen Ganberarekin lanean ari zela, Nafarroako Foru Ogasunak konpromisoa hartu

zuen diru-bilketa garbiari buruzko informazioa emateko, hasitako ekitaldiaren eta itxitako ekitaldiaren artean banakatua. Gaur egun berrikusten ari dira informazio hori ateratzeko prozesu informatikoak.

3. Zer arrazoi teknikor eragozten du modu fede-emailean identifikatu ahal izatea zenbat diru bildu den egiaz iruzur fiskalaren aurkako borrokan detektatutako zenbateratik (horri buruzko informazioa urtero ematen da)?

Iruzuraren aurkako borrokaren ondoriozko sortzapenak prozedura informatikoak erabiliz identifikatzen dira, Nafarroako Foru Ogasuneko zerbitzuetan haietaz ezarritako definiziotik abiatuta. Gerta daiteke zenbaterako horiek azaleratzen diren ekitaldia baino askoz geroago kobratzea, ordaintzeko epea geroko ekitaldi batean amaitzen delako, edo lortu delako ordainketa geroratzea hurrengo ekitaldi batera arte, edo lortu delako premiamendu bidean geroko ekitaldi batean kobratzea.

CATen, tributu arloko informazioaren egiturak beti islatzen du eragiketen eduki osoa. Kontabilitateko erregistroetako zenbait mugimendu ditu oinarri, erregistro horien hasierako egoera aldatzen dutenak zorrak geroratzen direnean edo premiamendupean jartzen direnean. Zorren egoeraren trazabilitatea hobetu nahian 2018an ezarri zen tresna batek zorren etengabeko identifikazioa ahalbidetzen du, edozein dela ere zor horiek kobratzeko diru-bilketa prozeduraren egoera.

Nafarroako 2020ko Kontu Orokorren fiskalizazioan Kontuen Ganberarekin lanean ari zela, NFOk konpromisoa hartu zuen iruzurraren kontrako borrokaren emaitzei lotutako kobrantzen gaineko informazioa eskaintzeko, kobrantzak emaitza horien sortzapeneko urteari egotzita. Gaur egun, informazio hori ateratzeko prozesu informatikoak berrikusten ari dira.

4. Ogasunak nola identifikatzen ditu ekitaldi bakoitzean iruzur fiskalaren aurkako borrokan sortzen diren diru-sarrerak eta hurrengo ekitaldietan kutxan kobratzen ahal diren diru-sarrera errealak?

Aurreko erantzunean adierazitakoari eusten diogu.

5. Nafarroako Ogasuna zer ari da egiten Nafarroako Ogasunak detektatutako salbuespen horiek zuzentze aldera?

CAT tributu arloko informazio sistemaren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko SAPG21 kontabilitate sistemaren arteko interfazea aldatzeko proiektua itxi izanak lanaren tamaina erakusten du.

NFOk bere plantillan informatikari kualifikatuak sartzen dituenean –hori 2022ko lehen hilabeteetarako eginen du–, sisteman indarra duten kontabilitateko definizioen analisi sakona eginen da, eta baloratuko da zein den aukera eraginkorrena

Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren aplikaziorako behar den kontabilitate-informazioa eskaintzeko.

Aurrekoa gorabehera, Kontuen Ganberaren oharrei jarraituz egunotan egiten ari den lanari esker, CATen islatutako diru-sarrerara guztiak osorik eta egokiro egozten ahalko dira ekitaldian bertan edo aurreko urteetan sortutako diru-sarrerara gisa, behar diren datuen erauzketa informatikoa dela medio.

Nafarroako enpresa publikoren bati agindu al dio egin beharreko aldaketa teknikoak egin ditzan kontabilitatea, zerga-kudeaketa eta kontabilitate-sistema arautzen duten aplikazio informatikoetan, halako moduan non behin betikoz konponduko diren diru-sarrerak behar bezala identifikatzea eragozten duten arazo horiek?

Aurreko atalean adierazi bezala, Kontuen Ganberak bide horretatik behin eta berriz egindako gomendioei jarraituz, CAT tributu arloko informazio sistemaren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko SAPG21 kontabilitate sistemaren arteko interfazearen bilakaeraren azterketa eginen dute NFOri atxikitako informatikari kualifikatuek. Lan horretan, ohi den bezala, Tracasa Instrumental SLren laguntza jasoko da.

Azkenik, esan behar da Kontuen Ganberak 2022rako bere fiskalizazio programan sartu duela txosten bat egitea tributu arloko informazio sistemaren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontabilitate sistemaren arteko integrazioari buruz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 24an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria, Elma Saiz Delgado

Galdera, Iratxeko monasterioaren jabetza lagatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iratxeko monasterioaren jabetza lagatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 21eko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 292 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2022ko urtarrilaren 17an (10-22/PES-7 galdera), Iratxeko monasterioaren jabetza lagatzeari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak ematen dion informazioa:

Iratxeko Andre Maria monasterioa Turespañari atxikita dago, eta erakunde horretako lehendakariaren idazki baten bitartez jakinarazi zen monasterioa Nafarroako Gobernuari itzultzeko egin beharreko izapideak hasiak zirela.

Duela gutxi, departamentu honek argibideak eskatu ditu prozedura horren egungo egoera administratiboaz, beharrezkoa baita Ogasun Ministerioak aurretik atxikipena kentzea, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 10.6.d) artikulua arabe-ra.

Behar diren argibideak jasotzen ditugunean informazio osoa emanen dizugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 11n

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, Muesko erromatarren presako aztarnategia hartzen duen finkari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Muesko erromatarren presako aztarnategia hartzen duen finkari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 21eko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00008) Muesko erromatarren presako aztarnate-

gia hartzen duen propietateari buruzkoa. Hona Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Nafarroako Gobernua esku-hartze arkeologikoak egiten ari da Muesko 1. poligonoko 597. lurzatian. Lurzati hori pribatua bada ere, Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legeak ezarri bezala, esku-hartze arkeologikoak egiten ahalko dira titularraren baimenarekin, eta kasu honetan titularraren baimenik badago.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2022ko otsailaren 10ean

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan 2021ean egindako aparteko ordui buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan 2021ean egindako aparteko ordui buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 21eko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Adolfo Aráiz Flamarique jaunak informazio eskaera egin du (PES-00009), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

1.- Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan aparteko zenbat ordu –lanegunetakoak nahiz jaiegunetakoak– egin ziren 2021ean? Zenbateko kostua izan zuen horrek?

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan egindako aparteko orduak, lanegunetakoak nahiz jaiegunetakoak, 22.844 izan ziren. Horien truke guztira

384.139,28 euro ordaindu ziren eta 1.007,81 orduko denbora-ordaina eman zen.

2.- Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan izotz-elurretako aparteko zenbat ordu –lanegunetakoak nahiz jaiegunetakoak– egin ziren 2021ean? Zenbateko kostua izan zuen horrek?

“Esku-hartze ordu” deitzen zaien horietatik 7.935,75 ordu egin dira “izotz-elurretako ordu” gisa eta horien truke guztira 189.924,21 euro ordaindu dira 2021. urtean.

3.- Gauza jakina da, halaber, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan badela talderen bat guardia lokalizatuak egiten dituen. Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan guardia lokalizatuko aparteko zenbat ordu –lanegunetakoak nahiz jaiegunetakoak– egin ziren 2021ean? Zenbateko kostua izan zuen horrek?

2021eko ekitaldian 3.776 ordu egin dira, guztira, eta 24.682,63 euro ordaindu dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 18an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, Nicasio Landa ikastetxe publikoaren egoera aztertzeko sortu zen lantaldeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nicasio Landa ikastetxe publikoaren egoera aztertzeko sortu zen lantaldeari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 21eko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 10-22-00011 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

– Lantaldeak bi bilera ofizial egin zituen iragan ikasturtean. Ikastetxera joan izan ziren 2020ko abenduan zehar (Ikuskapena, Bizikidetza eta Inklusioa bereiz eta batera), eta 2021eko urtarrilean lanerako eta aukeratarako plana prestatu zen, ikastetxeko lantaldearekin batera garatzekoa.

Iragan ikasturtean zehar zenbait bilera partzial egin dira proposamenak eta bilakaera aztertzeko, eta ikastaro honetarako erabakiak hartu dira. Erabaki horiek garatzen ari dira.

Orain ikastetxeko klastroaren eta hezkuntza komunitatearen erabakien zain gaude.

– Lan ildo honi jarraitu zaio:

- Ikastetxea ezagutzea: funtzionamendua, dokumentazioa, bizikidetzaren azterketa (banakako inkestak irakasle guztiei), bisitak ikasgeletan eta ikasleen sarrera eta irteera orduetan.

- Ingurunea ezagutzea: elkarrizketak gizarte eragileekin (Gizarte Zerbitzua, auzo elkarteak), 0-3 urtekoen haur eskola.

- Taldeko kideek informazioa biltzea: informazioa bildu da Educa programako azterlanaren bidez eta ikastetxeko dokumentazioaren bidez (urteko programazio orokorra, prestakuntza plana, ikastetxearen plana, bizikidetza plana, dibertsitateari erantzuteko plana, emaitza akademikoak...)

- Erabakiak hartzea: ikastetxeari jarduketa bartzuk planteatu zaizkio, ikastetxearen eraldaketa sustatzeko ezinbestekoak.

- Oraingo egoera: departamentutik aldaketak egin dira zuzkidurari dagokionez, lan metodologiaren arloko eskakizunei dagokienez, baina inoiz ere ez dugu estutu zenbait programatan (PROA+, Laguntza) sar dadin, nahiz eta horiek eraginen luketen eraldaketa beharrezkoa iruditzen zaigun pausoak eman ahal izateko auzoan errotutako ikastetxe dinamikorantz eta egiazko eskola komunitaterantz.

- D eredia: oraingoz ez da kontuan hartu ikastetxean D eredia ezartzeko aukera, ikastetxea biziberritzeko eta haren eraldaketa errazteko neurri gisa.

- Matrikulen erregistroan ageri denez, 2020-2021 ikasturtean 20 ikasle zeuden matrikulatuta eta 2021-2022 ikasturte honetan berdin jarraitzen du kopuruak.

Departamentuaren ekintza plana eta aktak eskuratu nahi izanez gero, informazio eskaera egokiaren bidez eskatu behar dira.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

Galdera, Nafarroako Ekialdeko Pirinioen Suspertze Ekonomikorako Planeko ekintzaitzako eta mikroenpresen proiektuan garatutako jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ekialdeko Pirinioen Suspertze Ekonomikorako Planeko ekintzaitzako eta mikroenpresen proiektuan garatutako jarduketei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 21eko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak 10-22/PES-00012 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzutekoa. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

Nafarroako Ekialdeko Pirinioen Suspertze Ekonomikorako Planeko ekintzaitzako eta mikroenpresen proiektua garatzeko honako jarduketa hauek egin dira orain arte:

– Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmena prestatu, izapidetu eta sinatu da, proiektua garatzeko.

– Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bidez, Nafarroako Foru Komunitateak aurreko hitzarmeneko finantzaketaren %100eko aurrerakina jaso du, 3.000.000 euro, hitzarmenari atxikitako jarduketa planean aurkeztu diren azpiproiektuak finantzatzeko.

– Jarduketa planean jasotako azpiproiektuak kudeatzeko plana egin da.

– Proiektuaren PEP elementua izapidetzen hasi da. PEP elementua da aurrekontuko gastuaren kontabilitate-unitate oinarrizkoa eta independentea, eta beraren bidez urtez urte eta banaka kontrolatuko da haren exekuzioa, une bakoitzean haren egoera ezagutzeko eta berresleipen edo birprogramazioei buruzko erabakiak hartu ahal izateko, kudeaketaren eta aurrekontuaren ikuspegietatik.

– Oinarri arautzaileak prestatzen hasi dira Pirinioetako ekintzaitzarako eta mikroenpresentzako dirulaguntzen deialdia egiteko, banakako ebaluazioarekin, 940.000 euroko zuzkidurarekin 2022. urterako.

– Izapidetzen ari da 90.000 euroko gastu baterako baimena, 2022. urterako, Erroibarko Udalari zuzeneko dirulaguntza emateko udalerrriaren digitalizatorako, eta hori arautuko duen hitzarmena prestatzen ari da.

– Izapidetzen ari da 100.000 euroko gastu baterako baimena, 2022. urterako, Luzaideko Udalari zuzeneko dirulaguntza emateko udalerrriaren digitalizatorako, eta hori arautuko duen hitzarmena prestatzen ari da.

– Izapidetzen ari da 370.000 euroko gastu baterako baimena, 2022. urterako, Erronkariko Ibaixaren Batzordeari zuzeneko dirulaguntza emateko udalerrriaren digitalizatorako, eta hori arautuko duen hitzarmena prestatzen ari da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2022ko otsailaren 11n

Lurralde Antolamenduko, etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria, José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, 10+500 kilometro puntutik 22+500 kilometro puntura bitarte N-121 errepidea 2+1 bide bihurtzeko proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 10+500 kilometro puntutik 22+500 kilometro puntura bitarte N-121 errepidea 2+1 bide bihurtzeko proiektuari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 21eko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00013), honako argibide hauek jaso nahi baititu:

Lizitatu al da, behin 2022ko aurrekontuak onetsita, 10+500 kilometro puntutik 22+500 kilometro puntura bitarte –Burutaingo saihesbidea– N-121 errepidea 2+1 bide bihurtzeko proiektua?

Lehenbiziko lizitazioaren aldean zertan aldatuko da, zehatz-mehatz, eskatutako kaudimen profesionala? Zer dela-eta aldaketa hori?

Gertatutakoaren ondorioz proiektu teknikoaren idazketa zenbat atzeratuko dela kalkulatu zen duzue?

Hona Lurraldeko Kohesiorako kontseilariak ematen dion informazioa: oraindik ez da argitaratu lizitazio berria.

Kaudimenaren zenbatekoa txikitzean datza aldaketa. Izan ere, aldaketa hori eginda enpresa gehiago aurkezten ahalko dira, lehenbiziko lizitazioan bakarra aurkeztu baitzen, eta berak ez zuen betetzen eskatutako kaudimen profesionala.

Epeei dagokienez, oraingoz ezin dira ziurtasunez zehaztu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 11n

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, NABIren webguneko departamentuetako berdintasun-unitateekiko mintzakidetzarako plataformari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, NABIren webguneko departamentuetako berdintasun-unitateekiko mintzakidetzarako plataformari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 21eko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak informazio eskaera egin du (PES-00014); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

NABIren webgunean departamentuetako berdintasun-unitateekiko mintzakidetzarako plataforma bat dagoela esaten da, baina ez du funtzionatzen, eta beste horrenbeste gertatzen da berdintasunerako urteko programen estekarekin, non berdintasunerako unitateen lanaren plangintza jasotzen baita, bai Administrazio osoari dagokionez, bai departamentu bakoitzari dagokionez. Zergatik?

Genero ikuspegia eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna legerian jasorik dauden bi elementu dira, eta politika publiko guztiak gidatu behar dituzten printzipiotzat jotzen dira. Genero berdintasunerako unitateak printzipio horien arduradunak dira Nafarroako Administrazio Publikoaren egintza, arau eta politika guztietan, eta, halaber, haien eginkizun nagusia da printzipio horien integrazioa sustatu eta bermatzea Foru Komunitateko politika publikoetan, oro har.

Berdintasun-unitateekiko mintzakidetzarako plataformak, izan ere, badu esteka bat NABIren webgunean. Plataforma hori Nafarroako Gobernuko langileek genero ikuspegia Foru Administrazioaren jardunean txertatzeko duten tresna da. Bertan argibide eta aholkuak eskatzen ahal dira departamentuetako lanean genero ikuspegia txertatzen joateko moduari buruz, eta, gainera, unitateei buruzko informazioa dago: zer diren, non dauden, zer eginkizun dituzten, nortzuek osatzen dituzten; baita gaiari buruzko materialak ere. Plataforma Sharepointen eraikita dago (lankidetzaz inguruneak sortzeko Microsofteko programa), eta bi sarbide mailatan egituratuta dago: irekia, Administrazioako langile guztientzat, eta murriztua, berdintasun-unitateentzat edo haiek baimendutako pertsonentzat soilik. Unitateek informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko eta partekatzeko erabiltzen duten gunea da, eztabaidagunea, eta dokumentazio biltegia. Dokumentazioan nabarmentzen dira araudia, tresnak edo beste gune batzuetarako estekak.

Plataforma, beraz, Nafarroako Departamentuetako langileentzako lan gune mugatua da, Administrazioaren baitan eta hark garatzen dituen politika publikoetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa ezartzeko baliabideak eta tresnak eskaintzen dizkiena. Ez da herritarrentzako informazio plataforma bat, berdintasun-unitateen eta Foru Administrazioako departamentuen arteko mintzakidetzarako gunea baino.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 10ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretua aldatzen duen foru dekretuaren proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretua aldatzen duen foru dekretuaren proiektuari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

I-E talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00015), jakin nahi baitu “ea zertan den Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretua aldatzeko foru dekretuaren proiektua”. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Proiektua izapidetzen hasi zen eta jendaurrean egoteko fasea bete zen inolako ekarpenik jaso gabe. Baina geroago, azaroaren 9an, azaroaren 5eko SND/2021 Agindua onetsi zen, eta haren bidez aldatu egin ziren Osasun Sistema Nazionalako zerbitzu komunak zorroa eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1020/2006 Errege Dekretuaren III. eranskina eta Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduak baimentzeko oinarri orokorrak ezartzen dituen urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinak. Hala, Estatuko zerbitzu zorroari gehitu zitzaizkion sexu bereko bikotekidearekin bizi diren edo bikotekiderik ez duten emakumeentzako ugalkortasun eta ugaltze tratamenduak. Beraz, dagoeneko Nafarroan in vitro ugalkortasun tratamenduak ematen ari zaizkie bikotekiderik gabeko emakumeei eta ez dago zerbitzu hori gehitu beharrik gure Zorro osagarrian.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, foru erkidegoaren errealitate historiko eta instituzionala desitxuratzen duten euskarazko testuliburuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, foru erkidegoaren errealitate historiko eta instituzionala desitxuratzen duten euskarazko testuliburuei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztutako 10-22/00017 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Iñaki Iriarte López jaunak galderan aipatu duen jendaurreko salaketa horretan adierazi zen Nafarroako Foru Komunitatearen errealitate historiko eta instituzionala manipulatzeko ari zela D ereduko ikastetxe publikoetan eta itunduetan erabilitako zenbait testuliburutan.

Salaketak ez du zehazten zein diren gainbegiratu beharreko testuliburuak. Aldiz, berariaz aipatzen du Nafarroako konkistari buruzko komiki bat, Joseba Asiron Iruñeko Udaleko EH Bilduko eledunak egina.

Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren eginkizuna da testuliburuak gainbegiratzea, Hezkuntza Departamentuak lan hori egin behar baitu ikuskapen prozesuan, Konstituzioaren printzipio eta balioak eta Hezkun-

tzari buruzko Lege Organikoan xedatutakoa errespetatu daitezela begiratzeko.

Atzera begirako ikerketa bat abian jartzeak – horixe baita, izatez, egindako jendaurreko salaketatik ondorioztatzen dena– Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren (HIZ) langile askoren dedikazioa eskatuko luke. Langile horiek beste lan batzuk egiten aritu dira eta ari dira, lehentasunezkoztat jo direnak hezkuntza jardueraren plangintzarako eta garapenerako.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak (2020-12-30eko BOE) eta hura ezartzeko egutegiak indarra hartu eta gero, hezkuntza administrazioek etapa eta ikasgaietarako curriculum berriak garatu behar dituzte, 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetan arian arian ezartzeko. 2021eko ekainetik, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua elkarlanean ari da, Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuak koordinaturik, curriculum berri horiek prestatzen. Beraz, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egiten dituen eguneroko lanei beste hori gehitu zaio.

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren urteko jarduketa plana garatu eta gauzatu beharrak merezi duen errespetuagatik eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak dituen giza baliabideen zentzuzko kudeaketagatik, hizpide dugun galderan azaltzen direnak bezalako gaietan irizpide nagusia da salaketa zehatz eta espezifikoei erantzutea, eta ez halako “auzi orokor” bat abian jartzea dakartenei.

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Corellako Arrese Museoaren ondoko eraikinari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Corellako Arrese Museoaren ondoko eraikinari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces

andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00018) Corellako 7. poligonoko 57. lurzatian dagoen eraikinari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen dion informazioa:

Ez da egokitzat jotzen, oraingoz, eraikin horri Interes Kulturalerako Ondasunaren deklarazioa kentzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 9an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Galdera, Valle de Odieta SCL eta Hibridación Termosolar Navarra SL merkataritza-enpresei irekitako zehapen-espeditenteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Valle de Odieta SCL eta Hibridación Termosolar Navarra SL merkataritza-enpresei irekitako zehapen-espeditenteei buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Valle de Odieta SCL eta Hibridación Termosolar Navarra SL merkataritza-enpresei irekitako zehapen-espeditenteei buruz (10-22-PES-00019). Hori dela eta, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Maiatzaren 20ko 478E/2021 Ebazpena eman zenetik, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak

ba al daki, ziurtasunez jakin ere, espeditentearen dokumentazioa igorri zitzaion jurisdikzio-organoak edo eginbideen instrukzioa egiteko nahiz zigor-prozedura ebazteko eskumena duenak erabakirik hartu ote duten?

Erantzuna: zuzendaritza nagusi honek ez du auzi horri buruzko inolako erabaki judizialen berririk.

2.- Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ba al daki, ziurtasunez jakin ere, zigor-arloko epaitegi eskudunak artxibatu ote dituen Foruzaingoaren 01499154 ikerketa-eginbideak igorri ondoren abiarazitako eginbideak edo igorritako gainontzeko dokumentaziotik heldu direnak?

Erantzuna: zuzendaritza nagusi honek ez du eginbideak artxibatu izanaren berririk.

3.- Maiatzaren 20ko 478E/2021 Ebazpena eman ondotik, Foruzaingoak, Basozainen Zerbitzuak edo Sepronak bestelako salaketarik aurkeztu al dute Valle de Odieta SCLren eta Hibridación Termosolar Navarra SLren aurka?

Erantzuna: Foruzaingoak, Basozainen Zerbitzuak eta Sepronak ez diote zuzendaritza nagusi

honi bestelako salaketarik igorri Valle de Odieta SCL eta Hibridación Termosolar Navarra SL enpresen aurka.

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

Galdera, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa (ABEN) Euroeskualdearen erregelamenduari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa (ABEN) Euroeskualdearen erregelamenduari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00020). Hori dela eta, Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak informazio hau ematen dio:

Zenbait aldiz azaldu dizugunez, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea Europako

mugaz haraindiko lankidetzarako elkarte bat da, Europako zuzenbidean araututako figura, nortasun juridiko propioa duena. Egoitza dela-eta, Frantziako zuzenbidearen menpean dago.

Beraz, ez dago ez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpean, ez haren erakunde publiko, sozietate publiko edo fundazio publikoen menpean.

Horregatik, ez dagokigu informazio eskaeran azaldutako gaiari buruz informazioa ematea. Elkarteak berak eman behar lituzke eskatutako datuak, bere arau juridikoetan oinarrituta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 18an

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, Euroeskualdearen txandakako lehendakaritzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Euroeskualdearen txandakako lehendakaritzari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-

00021). Hori dela eta, Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak informazio hau ematen dio:

Nafarroak Euroeskualdeko lehendakaritza bete izan du eta beteko du Euroeskualdean indarra duen araudiari jarraituz. Langileei dagokienez, zehazki, Frantziako funtzio publikoaren kodeari jarraituz. Esteka honen bidez eskuratzen ahal duzu:

https://www.legifrance.gouv.fr/codes/texte_lc/L EGITEXT000044416551/2022-03-01/

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 18an

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olo Hualde

Galdera, despopulazioaren aurka borrokatzera bideratutako gastu arrunteko neurrietarako Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntzen 2021eko deialdiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, despopulazioaren aurka borrokatzera bideratutako gastu arrunteko neurrietarako Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntzen 2021eko deialdiari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Pachi Pérez Arregui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00022), honako hau jakin nahi baitu: "Despopulazioaren aurka borrokatzera bideratutako gastu arrunteko neurrietarako Nafarroako toki

entitateentzako dirulaguntzen 2021eko deialdiari dagokionez, Nafarroako Gobernuak noiz ordainduko ditu deialdi horren babesean toki entitateei emandako dirulaguntzak?". Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak horretaz ematen duen informazioa:

Apirilaren 30ean, Toki Informazioaren eta Despopulazioaren aurkako Borrokarako Estrategiaren Atalak proposamen-txostena eman zuen 2021eko deialdi honi buruz: despopulazio arriskua duten Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntzak, despopulazioaren aurka borrokatzera bideratutako gastu arrunteko neurrietarako.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren ekainaren 21eko 100E/2021 Ebazpenaren bidez, 2021eko deialdi hau onetsi zen: despopulazio arriskua duten toki entitateentzako dirulaguntzak, despopulazioaren aurka borrokatzera bideratutako gastu arrunteko

neurrietarako. Ebazpen hori 2021eko uztailaren 16ko NAO n argitaratu zen, 165. zenbakian.

Abuztuaren 16an amaitu zen eskaerak aurkezteko epea, eta ondoren eskaerak baloratu ziren eta akatsak zuzentzeko errekerimenduak egin ziren.

2021eko irailaren 22an espedienteen kudeatzailean bideratu ziren proposamen-txostenak, bai eta dirulaguntzak emateko ebazpenaren proposamena ere.

2021eko azaroaren 25ean, espedienteen agerienez, Kontu-hartzailatza Delegatuak dirulaguntza emateari buruzko eragozpen etengarria aurkeztu zuen, 2021eko azaroaren 19an sinatua.

2021eko azaroaren 25ean bertan, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak eragozpen etengarriarekin ados ez zegoela adierazteko txostena aurkeztu zuen, eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontu-

hartzailatza Nagusiaren erantzunaren zain gelditu zen espedienteak.

Honako erantzun hau prestatu den egunean, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia desadostasun-txosten horren erantzunaren zain dago.

Aurrean azaldutakoak galarazi egin du dirulaguntzak emateari buruz ebaztea. Beraz, oraingoz ezin da aurreratu noiz ebatziko den dirulaguntzak ematea eta noiz ordainduko zaizkien dirulaguntzak deialdira bildutako toki entitatei.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, Espainiako Gobernuak beken eskumena Nafarroaren esku utz dezan premiatzen duen mozioa betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Espainiako Gobernuak beken eskumena Nafarroaren esku utz dezan premiatzen duen mozioa betetzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urriaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (Na+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du (10-22/PES-00023) Espainiako Gobernuak beken eskumena Nafarroaren esku utz dezan premiatzen duen mozioaren egoerari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa

Digitaleko kontseilariak horretaz emateko duen informazioa:

Nafarroako Gobernuak irmo ari da lanean Foruaren Hobekuntza indartu eta betearazteko asmoz, eta, bide horretan, aurreko gobernuak bi hamarkadatan bazter utzitako eskumen batzuen transferentzia lortu da, besteak beste espetxe-osasunarena.

Gaur egun Espainiako Gobernuarekin batera buru-belarri eta trabarik gabe lanean ari gara bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eta trafikoaren gaineko eskumenak geureganatzeko. Nafarroako Gobernuak ildo horretatik Espainiako Gobernuarekin elkarlanean jarraituko du beken gaineko transferentzia lortze aldera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 21ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

Galdera, Cascanteko jarduera ekonomikoen eremua taxutzeko hirigintza-planeamenduko dokumentuak idazteko lanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Cascanteko jarduera ekonomikoen eremua taxutzeko hirigintza-planeamenduko dokumentuak idazteko lanei buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 4ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak 10-22/PES-00024 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Honen bidez, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

Galdera hauei erantzuteko eskatu da, "NASUVINSAK eta Cascanteko Udalak sinatutako akordioetatik heldu diren Cascanteko jarduera ekonomikoen eremua taxutzeko hirigintzako planeamenduko dokumentuak idazteko lanei dagokienez":

- "Zertan da industrialde horren hirigintzako planeamenduaren idazketa?"

Aldaketa-proiektuaren zirriborroa egin ondoren, Udalaren eskaerak txertatzen ari dira, eremuan etxebizitzari eta jarduerari eusteari dagokienez.

- "Zeri zor zaizkio atzerapena eta Cascanteko Udalarekiko komunikazio eza?"

Lanak Cascanteko Udalaren eta Navarra de Suelo y Vivienda SA sozietate publikoaren arteko

2019ko azaroaren 18ko hitzarmenean ezarritako ari jarraituz egiten ari dira (toki eremuko jarduera ekonomikoetarako poligono baten sustapenerako eta exekuziorako hitzarmena), pandemia egoera gorabehera, eta hasiera batean jarduketarako aurreikusi zen eskaria galdu den arren.

Ez dugu ulertzen zergatik aipatzen den komunikazio eza, hitzarmenak berak aurreikusten baitu ordezkariak izendatzea "informazioa trukatzeko eta jarduketan programaren exekuzioari eta bete-tzeari jarraipena egiteko" (hitzarmeneko 10. klausula).

- "Nasuvinsak zer data darabil gogoan proiektua izapidetzeko eta abian jartzeko?"

Planeamendu tresna 2022ko maiatzean aurkeztekoa da, eta 2023ko otsailerako onestekoa. Lehenbiziko exekuzio unitatea abian jartzeko, lehenik desjabetze espedientea izapidetuko da, 2024ko otsailean, eta, unitate horretako obrei dagokienez, behin lurra erosita obren kontratazioa egingen da baldin eta, aldez aurretik, "eratuko diren lurzatietatik gutxienez % 30 erosteko aukerak formalizatzen badira, hasieran obretarako lortu ziren dirulaguntzak behin betikoak bilakatuko direla bermatzeko. Edo, dirulaguntzak ezinezkoak izanez gero, erosteko aukerak formalizatzen badira, bederen, konprometitutako lurzatiaren kanpoaldeko azpiegituretako eta barneko urbanizazioko obretan egin behar den inbertsioa justifikatzeko adinako salmenta-prezioa duten azalaren gainean" (hitzarmeneko 7. klausula).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 25ean

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen inbentario eta ohar soilei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen inbentario eta ohar soilei buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 4ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00025); horren bidez, honako informazio hau eskatu dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernuak noiz argitaratuko ditu Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian Eliza Katoli-

koak Hipoteka Legearen 206. artikulua babesean immatrikulatutako ondasunen inbentarioa eta ohar soilak?

Nafarroan Eliza Katolikoak 1900az geroztik immatrikulatu dituen ondasunen zerrenda hurrengo asteetan argitaratuko da Navarra.es atarian.

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak zuzendu du informazioaren bilketa eta haren web orrian egonen da zerrenda eskuragarri: <https://www.navarra.es/eu/nafarroako-gobernua/migrazio-politiketako-eta-justiziako-departamentua>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apestequiá

Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak berreskuratze aldera toki entitateentzako kontsulta eta aholku bulego bat sortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak berreskuratze aldera toki entitateentzako kontsulta eta aholku bulego bat sortzeari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 4ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun den Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (10-22/PES-00026). Hona Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Une hauetan udalak ari dira informazioa azterzen, azken batean haien esku baitago egokizat jotzen dituzten legezko prozesuei ekitea. Gobernuak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera aztertuko du zein den biderik egokiena toki entitateei aholkularitza zerbitzua eskaintzeko, jasotzen diren eskaeren kopuruaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 25ean

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Nafarroan jokia arautzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan jokia arautzeari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 4ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00027); horren bidez, honako informazio hau eskatu dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Nafarroan jokia arautzeko lege- nahiz erregelamendu-ekimenik bultzatzeko?

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Nafarroan apustu-etxeak arautzeko ponentzian onetsitako ondorioak jasoko dituen lege- nahiz erregelamendu-ekimenik bultzatzeko?

Joko-jarduerak arautzeko eskumena Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean dago banatuta. Batetik, Estatuaren eskumena eksklusiboa da estatu-eremu batean egiten denean jarduera, presentziala denean nahiz bide elektronikoa, informatikoa, telematikoa eta interaktiboa erabiliz egiten denean. Bestetik, autonomia erkidegoek gai honen gaineko eskumenak har ditzakete jokia beren lurralde-esparru zorrotzera mugaturik egiten denean, zein ere den joko-egikera.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikulua Nafarroako Foru Komunitateari esleitu zion kasino, joko eta

apustuen arloko eskumen eksklusiboa, Kirol Ongintzako Elkarrekiko Apustuak salbuetsita. Xedapen hori mamitu zen urtarrilaren 24ko 226/1986 Errege Dekretuan, zeinaren bidez eskualdatu baitziren aipatu eskumenak. Arau horren indarrez, Nafarroari dagokio baimena ematea, besteak beste, kasinoen, bingo-aretoen, joko-aretoen eta apustudenden instalazio, irekitze eta funtzionamendurako, bai eta jolas-makinak nahiz zorizko jokoetarako makinak ustiatzeko ere, Foru Komunitatearen esparruan.

Nafarroaren eskumena erabiliz, garai batean Nafarroako Jokoari eta Apustuei buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legeak –jada indargabetuta dago– eta gaur egun Nafarroako Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeak joko-jarduera arautu dute hura enpresa-jardueratzat harturik, eta, aldi berean, gizarteko sektore kalteberenen eskubideak babesten saiatu dira, hau da, joko-jardueraren kontsumo gehiegizkoa eta itxuragabea dela-eta beren osasunean edo ekonomian kalte gehien jaso dezaketen sektoreen eskubideak.

Foru legedia garatzeko, Nafarroako Gobernuak arian-arian tankeratu du joko-sektorea osatzen duten jardueretako bakoitzaren berariazko araubidea, honako arau hauen bitartez:

– 73/2010 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Nafarroako Bingoaren Erregelamendua onesten duena.

– 270/1999 Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Joko Aretoen Erregelamendua onesten duena.

– 94/1991 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, Rifa, Tonbola eta Zorizko Konbinazioen Arautegia onesten duena.

– 181/1990 Foru Dekretua, uztailaren 31koa, Joko Makinetarako Arautegia onesten duena.

– 74/1989 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, joko makinak instalatzeko baimenak arautzen dituena.

Kontuan hartu behar da zerrenda horretan ez dela agertzen 16/2011 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, Nafarroako Apustuen Erregelamendua onesten duena, arau hori baliogabetu egin baitzuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, 2014ko urtarrilaren 23ko epaiaren bidez (Auzitegi Gorenak berretsia, 833/2014 zenbakiko errekurtsioan emandako 2016ko martxoaren 8ko epaiaren bidez), halako moldez non gaur den egunean bat bera baita joko-aretoak arautzen dituen araua eta apustu-denden gainekoa.

Halaber, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren ekainaren 23ko 98/2017 Foru Aginduaren bitartez, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorreko Kontrol, Ikuskarpen eta Zehapenerako I. Plan Orokorra onetsi zen. Plan horren 1. ardatzak (Joko alorra) adingabe eta gizatalde zaurgarri batzuekin zerikusia duen jardun-ildo bat jasotzen du, xede nagusizat duena jokoan parte har dezaten eragozte eta enpresek joko-aretoetarako sarbidea eta jokortzea kontrolatzeko darabiltzaten protokoloen, jardun-arauen eta aplikazio edo gailu teknologikoen egokitasuna ebaluatzea.

Esan behar da, halaber, apirilaren 10eko 18/2015 Foru Legearen bidez aldatu egin dela Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea, behar diren murrizketa guztiak ezartzeko jokorako sarbideen modalitate guztietan. Horrela joko arduratsua bultzatzen da arlo horretan ere, aurrez aurreko jokoarekin egiten zen bezala.

Estatu-esparruan, 2020ko azaroaren 3an Espainiako Gobernuak azaroaren 3ko 958/2020 Errege Dekretua onetsi zuen, joko-jardueren gaineko komunikazio komertzialei buruzkoa. Biharamunean hartu zuen indarra, salbu eta 2021eko urtarrilera eta maiatzera arte atzeratu ziren artikulua eta xedapen batzuek.

Errege dekretu hori Jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legea osatzeko sortu zen. Izan ere, legearen xede nagusiak dira adikzio-jokabideei aurrea hartzea eta adingabeak zein beste talde kaltebera batzuk babestea, eta dekretuarenak, batetik, joko-jarduerak garatzeko gaitzen duten tituluak dituzten entitateei baldintzak ezartzea publizitate, babesletza nahiz sustapen jarduerak edo beren jarduerari buruzko bestelako komunikazio komertzialak garatu ahal izateko; eta, bestetik, joko arduratsu edo segurua sustatzeko eta kontsumitzaileak babesteko politika jakin batzuk garatzeko

oinarri izan behar duten baldintzak ezartzea joko-jarduerak garatzeko gaitzen duten tituluak dituzten entitateei.

Horrek 13/2011 Legearen aplikazio-eremuko joko-jarduerak garatzen dituzten entitateei eragiten die –tartean direla loteria-jokoak merkaturatzeko izendatutako operadoreak–, eta edozein bitarteko edo euskarri erabiliz operadoreen joko-jarduerari buruzko komunikazio komertzialak zabaltzen dituzten pertsona fisiko, juridiko, pribatu edo publikoei, esaterako komunikazio elektronikoko edo ikus-entzunezkoaren zerbitzuen emailei, informazioaren gizarteko zerbitzuen emailei (afiliatuak, web-orriak eta sare sozialak barne) eta beste edozein komunikabideri. Halaber, aplikatzea litzateke komunikazio komertzialak prestatu, igorri edo hedatzearen tarteko faseetan parte hartzen duten entitateei, hala nola publizitate sarei, publizitate agentziei edo bitartekaritza zerbitzuen emailei.

Komunikazio komertzialei dagokienez, salbuesi egiten dira zozketen emanaldiak eta emaitzen hedapena. Baita operadoreek joko-jarduerak eskaintzeko erabiltzen dituzten web.es orri edo aplikazio mugikorretan bakarrik iragartzen diren joko-produktuak ere.

Nafarroako Gobernuak 2019ko urrian ekin zien Jokoari buruzko Foru Legea aldatzeko atariko lanei, funtsezko hiru arlo nagusi jorratuz: ludopatiaren prebentzioa, adingabeen eta kolektibo babesgabeen babesa, eta joko arduratsuen sustapena. Garai berean Nafarroako Parlamentuak ere lantalde bat sortu zuen Nafarroan apustu-etxeak nola arautu aztertzeko, eta horren irizpena onetsi zen Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuraren 2021eko ekainaren 10eko Erabakiaren bidez, zeinak onesten baitu Nafarroan apustu-etxeak nola arautu aztertzeko Lantaldearen txostena.

Bi erakundeen lanetatik atera diren proposamenak lege mailako testu arauemaile batean jaso dira. Proposamen horiek landu egin dira programa-akordioa sinatu zuten eta Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuraren 2021eko ekainaren 10eko Erabakian jasotako konklusioak sinatu zituzten talde politikoei batera (erabaki horrek onetsi zuen Nafarroan apustu-etxeak nola arautu aztertzeko Lantaldearen txostena).

Kezka sozial eta politikoei iturri izan da kirol-apustuen eredu guztiek oso urte gutxitan izan duten hazkundera, bai eta horrelako jokoei zerikusia duten ludopatiaren gorakada ere, batez ere gazteek pairatzen dutena. Osasun publikoko arazotzat hartu izan da hori, eta, beraz, beharrezkoa da foru legean jasotako araudi indarduna egokitzea.

Alarma jo dute familiek, nerabe eta gazteekin lan egiten duten profesionalak, prebentzioaren arloan eta jokoarekin –batez ere kirol-apustuekin– lotura patologikoa duten pertsonen laguntzen jarduten duten elkarrekin, eta maila guztietako administrazio publikoetan nahiz entitate pribatueta egindako azterlanek.

Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan, kirol-apustuak nabarmen hazi dira. Establezimendu publikoetan jarrita dauden kirol-apustuetarako makinak nagusitzen ari zaizkie B motako makinei, halako moldez non bihurtzen ari baitira nafarrek diru gehien gastatzen duten joko-modalitatea.

Datu horiek guztiek erakusten dute kirol-apustuak izanen direla etorkizun ez oso urrunean dirurik gehien erakarriko duen joko mota, orain arte izandako gorakadak bere bilakabideari eutsiz gero. Igoera horren berri ematen du Nafarroako apustu-makinen parkeak: 2018an 1.138 izateraino iritsi ziren, urtebete lehenago 981 izatetik. Aipatu kopuruak ia bikoiztu egiten du duela

lau urte instalatuta zeuden 675 makinen kopurua. Kirol-apustuak hedatzen ziren bitartean, txanpon-makinen parkeak ia berdin jarraitu zuen 2019. urtean Nafarroan, aurreko ekitaldian baino 20 unitate gutxiagorekin eta guztira 1.945 makinarekin. Lau urte lehenago, berriz, 1.986 zeuden Foru Komunitatean.

Beraz, Nafarroako Foru Komunitateak kirol-apustuen arloan dituen eskumenak erabili behar ditugu araudi berri bat izateko, behar diren mugak ezarriz interes orokorra babesteko eta osasun publikoko arazoei aurrea hartu eta itzuri egiteko.

Adikzioaren arriskuak arintzeko neurriak ezarri nahi dira, irisgarritasuna gutxitu, esposizioa murriztu, babes faktoreei eragin hezkuntzaren bidez eta gizartea sentsibilizatuz, eta, azken batean, hezkuntza, familia, gizarte eta osasun esparruen arteko interakzioarako mekanismoak ezarri.

Horregatik guztiagatik, lege proposamen baten bidez proposatuko da Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzea, lege-aldaketak eginez lokal eta makinen araudian, irekitzeko eta ixteko ordutegietan, kontrolean, publizitatean eta babesletzan, helburu izanik adikzioaren arriskuak arintzea, irisgarritasuna gutxitzea, babes faktoreei eragitea hezkuntzaren bidez eta gizartea sentsibilizatuz, eta, azken batean, hezkuntza, familia, gizarte eta osasun esparruen arteko interakzioarako mekanismoak ezartzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 25ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apestequiá

